

HUHEZIK berri du eskaintza etengabeko prestakuntzan

2013/01/14

Ikastaro hauek antolatzen dira 25 urtetik gorako profesionalen prestakuntza eguneratzeko. Eman ere, hiru eratan emango dira edukiak: era presentzian, erdi-presentzian (bi horiek Aretxabaletan) eta on line (MU Plus bidez). Bat izan ezik, denak izango dira ikastaro trinkoak, 12, 16, 30 edo 50 ordukoak.

Eskaintza horren hartzailak dira hezkuntza erakundeetako klaustro, ziklo eta zuzendaritza-taldeak, eta esparru horretan diharduten norbanakoak. Baita gizarte aldaketak zertan diren ulertu nahi dutenentzat. Ahaztu barik kooperatibistak eta ekonomia sozialean sakondu nahi dutenak.

Izen-ematea eta matrikulazioa egin behar da ikastaroa hasi baino hamabost egun lehenago..

Argibide gehiago jasotzeko, idatzi **Ainara Gallastegiri** agallastegi@mondragon.edu helbidera, deitu telefono honetara: **943 71 41 57** eta irakurri dokumentu hauek:

- Ikastaroaren eskuorria
- MU Plus (Irekiak atalean)

